



DANI BLANCO

Angel Erro

◆ IDAZLEA

Gurutzegrama

HONDAR ABENDUAREN 21ean ehun urte bete ziren gurutzegrama asmatu omen zenetik. Badu antzinate-tik hasita anitz aurrekaririk, baina egun horretan, *New York World* astekariaren orrialde bat azken unean betetzera estututa, Arthur Wynnek *word-cross* delako bat, gero *crossword* birbataiatua, sartzea bururatu zitzaion eta lortu zuen arrakasta gaur egunera arte luzatzen da. Hala ere, ez dut ospakizun handirik ikusi, nekez oharren bat efemeride bitxia gogora ekarriz. Denbora-pasa zaharkiturik gelditu da akaso, josteta gehiena sakelakoan daramagunetik. Zaharberritzeko asmoa handiustekoegia litzateke, baina bururatu zait iritzi artikulua eta nonbait topatu dudana gurutzegrama elkar nitzakeela, proba egiteko.

JARRAIBIDEAK. Hartu folio zuri bat, sei zutabe eta sei lerroko taula bat marraztu, 6x6 laukiduna. Ezker-eskuin, 1etik 6ra zenbakitu; eta, goitik behera, Atik Fra *bizkitu*. 3C eta 4D laukiak beltzez zirrimarratu. Beheko definizioei kasu ginez, bete itzazu laukiak.

GOITIK BEHERA.

1. Neurri batean iraultza ordezkatu duen Atez ate ekimen, toki guztietan irakurri dugunaren arabera, hobesgarriari aurka egiten dion politika interesatuari darion usain txarra, zabor kontuez ari baikara, batere harritzeko ez den gauza, bidena-bar esanda.

2. Goitik behera irakurrita, itsas animalia (edo baita lotura bat ere); behetik gora irakurrita, animalia horri dagokion moduan, alegia, zarata edo soinu ozena, itsasoak atera dezakeena, esaterako.

3. Presio-neurri baten ikurra, toxikotasun handiko elementu baten ikurra, (haur hizkeran) maitasuna erakusteko ikurra. // Behetik gora, bai etena, bai nazioarteko denbora atomikoa.

4. Espainiako Gobernuak lantokiak behar ez diren langile soberakinez libratzeko erraztu duen neurri inklusiboa // Hirukote heterosexua batean gehien gozatzen duena.

5. Jolas tonto hau egiten tematu bazara, bukatzeko hasieran kalkulatu duzun denbora tartea.

6. Deskubrituz gero, politikariek ari bagara, dimisioa ematera bulkatu beharko lukeen elementua, oro har, norberarentzat ikusezina. Esaterako, hau argitaratu baino lehentxeago ikusarazi didate goitik beherako hirugarren definizioa ez dela zuzena: nik ERE jarri nahi nuen, baina kontsonantez erratu naiz. Zuzentzen dut beraz lehenagoko definizioa: oker batek eragiten duen ustekabeko edo larritasuneko interjekzioa.

EZKER-ESKUIN.

A. Garai batean gizarte klaseek ongi berezitate jantzi nahitaezkoa. Gaur egun ez hain nahitaezkoa, snob edo burusoila ez bazara behintzat.

B. Elkar erakar edo aldara dezaketen bi gorputz, pluralean, noski, elkar erakartzeko edo elkar egozteko bi gorputz nahitaezko kopuru minimoa baita.


C. Arabiar alfabetoaren hamargarren letra, 88 zenbaki atomikoa duen elementu kimikoaren ikur laburtua, Fiji Uhartetako Errepublikaren eskualde bat, euskal poeta onenaren siglak, baina, hala ere, gurutzegrametan huts egin ez dezakeen jainko egip-toarra. // Lurrikara txikiak eta mendi hegalean luiziak eragin dituen arren, handitu nahi duten urtegi nafarra.

D. Eskuin-ekzker, bere jarduna eten duen talde armatua; ezker-eskuin, bakarrik jarduna. // Trending Topic.

E. Zeharka edo noraezean, gurutzegrama ororen norabidean, beraz.

F. Kritika egiteko erabiltzen den genero literario zorigaitzokoa, oro har, ez hartzaileak, ez kritikak berak ez baitu ongiegi hartzen. Ez praktikatzeko aholkatzen da.

Norbaitek idazki hau holakotzat hartu izan badu, burutapen hura baztertzeko eskatzen diot. ■



Antton Olariaga

